

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Heriominak



Iratxe Retolaza

Hamarkada luze baten ondoren Sonia Gonzalez idazleak hitza hartu du, oraingoan saiakera-eran. Hala dio *Erreka haizea*-n: "Zergatik utzia nion idazteari galdetu ohi zidaten. Inork gutxik ulertu ahal zuen ezin niola literaturari barkatu errealitateaz sendatu ez izana". Hartara, fikziotik eta literatur adierazpideetatik urruntzeko asmoz, saiakeraren diskurtsora hurbildu da, baita lekukotza pertsonalera ere. *Erreka haizea*-n, beraz, pentsamenduak, lekukotzak eta ametsak bildu ditu Gonzalezek, testu laburretan gorpuztuak, errealitate-minak adierazteko. Diskurtso-molde ezberdinak erabilia, maila berean kokatu ditu gogoetak, emozioak zein ametsak, errealitatea antzemateko eta ulertzeko hirurak gako direla iradokita.


Esan gabekoei edo esan ezin direnei aho-tsa jartzeko asmoa nabari da. Bere buruaz beste egiteko gogoia izan duela adierazten du idazleak, eta esperientzia horri tira eginda, Mendebaldeko tabuetariko batek zeharkatzen du liburua: suizidioa. Halaber, beste hainbat gai ere jorratzen dira, nola edo hala buruaz beste egiteko nahiarekin harremana badutenak: ezereza gosea, galerak eta barne-minak, botere-harremanak, genero-zapalkuntzak, erruak eta damuak, sufrikarioaren kultura, eta abar. Kezka horiek guztiak ez ditu hari berean josi, gairik gai saltoka baitabil saiakeran zehar, baina elkarrri oihartzun egiten diete testuek, eta batasuna nabari da mundu-ikuskeran, tonuan zein giroan.

Erreka haizea.
Botere, isilpen eta herioaz

SONIA GONZALEZ

Susa, 2018.

Sonia Gonzalez Fernandez
idazlea (Barakaldo, 1977).



Idea eta gogoeta batzuk errepikakorrak egiten dira liburuan zehar, baina, errepikapenak baliagarri dira testuen arteko loturak egiteko.

Literaturak ere presentzia handia du saiakera honetan. Besteak beste, bere buruaz beste egin duten idazleak dakartza gogora (Virginia Woolf, Alfonsina Storni, Anne Sexton, Sylvia Plath...), nolabait ispilu zaizkionak. Ildo horretatik, idazketaren zein suizidioaren arteko hartu-emanegaz gogoeta egiten du, baita literaturaren ahalmenegaz zein gabezieguz ere. Poemak ere biltzen ditu hausnarketetara, idatzitakoaren eta gertatutakoaren arteko arrakalak azalerazteko asmoz. Politiko-ki zuzenaren garaiotan, eskertzekoa da zaurietara, zulo ilunetara, zitalkerietara zein botere-nahikerietara zintzotasunez hurbiltzea. ■